

# 3

## Hainbat gogoeta hizkuntza-gaitasunaren inguruan

**Iñaki Iurrebaso**

*Soziologoa*

iiurrebaso@outlook.com

Sarrera-data: 2016-07-10 | Onartze-data: 2016-09-12

**Laburpena.** Artikulu honetan hizkuntza-gaitasuna aztertzeko garaian, erabilerarekin duen harreman estutik abiatzea proposatzen da: erabilera da hizkuntza-gaitasunaren motorra eta, era berean, hizkuntza-gaitasuna da erabilerarako zorua. Ikuspegi horretatik abiatuta, hizkuntza-gaitasunak berez duen continuum izaera azpimarratzen da eta euskarazko gaitasuna ez ezik gaztelaniazkoa/frantsesezkoa ere aintzat hartu beharra proposatzen da. Azkenik, ikuspegi horretan oinarrituta ikerketarako tresna metodologikoak (ahozko hizkuntza-gaitasuna aldagaia, besteak beste) proposatzen dira. • *Hitz gakoak:* Euskara; hizkuntza-gaitasuna; erabilera, metodologia, Inkesta Soziolinguistikoa.

**Abstract.** When it comes to examining language competence, this article proposes starting from the close relationship between competence and use: use is the driving force of language competence, and conversely, language competence is the basis for use. From this perspective, the nature of the continuum intrinsic in language competence is highlighted, and the fact that not only Basque competence needs to be taken into consideration but Spanish/French competence as well. Finally, methodological research tools (the oral language competence variable, among others) are proposed on the basis of this perspective.

• *Key words:* Basque; language competence; use, methodology, Sociolinguistic Survey.

## SARRERA

**I**  
Hizkuntza-gaitasunari eta transmisioari buruz argitaratutako datuen sintesia ez ezik, gogoeta interesgarriak jarri ditu mahai gainean Iñakik *Euskararen gaitasuna eta transmisioa* txostenean (Martinez de Luna, 2016). Gure idatzi honetan, hizkuntza-gaitasuna ulertzeko eta ikertzeko moduaz ekarpena egin nahi dugu, Iñakik berak proposatzen duen hizkuntzaren indarberritzearen ikuspegitik landuta eta hizkuntza-gaitasunaz bere txostenean egiten duen kuestionamendu terminologiko-kontzeptualetik abiatuta. Transmisioaren gaia, berriz, ez dugu landuko. Bestela ere, komeni baino gehiago gainditu ditugu Soziolinguistika Klusterreko lagunek artikularentzat jarritako neurriak, nahiz eta “ez pasatzeko” eskatu.

Zehazki, hauxe da txosten honen xedea: **erabilerarekin duen harremana eta lotura estua argitzea helburu hartuta, hizkuntza-gaitasunaren azterketa *continuum* ikuspegitik egiteko proposamena argudiatzea eta oinarri metodologikoak finkatzea.**

Txosten honetan aurkeztuko ditugun oinarrien gainean abian jarria dugu Euskal Herriko hizkuntza-gaitasunaren egoera-bilakaerak *continuum* gisa aztertzen dituen ikerketa-lan enpirikoa. Ikerketa enpiriko hori zeharkako iturrien azterketan oinarritu dugu, Inkesta Soziolinguistikoan (ISL) gehienbat, eta hilabete batzuetan bukatzea espero dugu. Ikerketa hori amaitutakoan ikusiko da, hein handi batean, hemen proposatzen ditugun irizpideek funtsik baduten eta errealitate soziolinguistikoa argitzeko eraginkorrak diren edo ez.

Behin-behineko zirriborro gisa aurkezten dugu txosten hau, ikerketarako bide berriak aurkezteko asmoz eta eztabaida irekitzeko borondatez, ekarpenetara irekia, azken hitza esateko batere borondaterik gabe.

Hasi aurretik esan dezadan hemen aurkeztuko dudan gogoeta eta garatzen ari naizen ikerketa enpirikoa Iñaki Martinez de Lunaren eta Patxi Juaristiren zuzendaritzapean egiten ari naizen Doktorego Tesirako lantzen ari naizen aurrelan esploratorioetako bat dela. Esan dezadan, bestalde, txosten honetan aurkeztuko ditudan ikuspegi batzuen jatorria Soziolinguistika Klusterrarekin azken urteotan landutako bi ikerketa-proiektutan dagoela, *Hizkuntzen egoera soziala Euskal Herrian* proiektuan batetik eta *Euskararen Adierazle Sistemaren* proiektuaren barnean Iñaki Martinez de Lunaren beraren zuzendaritzapean hizkuntza-gaitasunari buruz egindako adierazleen aurre-lanketan bestetik.

---

**Xedea:**  
**erabilerarekin duen harremana eta lotura estua argitzea helburu hartuta, hizkuntza-gaitasunaren azterketa *continuum* ikuspegitik egiteko proposamena argudiatzea eta oinarri metodologikoak finkatzea.**

**Erabilera baldin bada indartu beharreko alderdi nagusia, zergatik da hizkuntza-gaitasunaren gaia ere garrantzitsua HINBEren ikuspegitik? Hizkuntza-gaitasuna erabilerarako zoru delako.**

## 1. HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ETA ERABILERAREN ARTEKO ALDEBIKO HARREMANA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, ERABILERARAKO ZORU; ERABILERA, GAITASUNAREN MOTOR

**I** Erabilera dugu hizkuntza bat bizirik dagoela erakusten digun adierazle nagusia eta hizkuntza horren osasunaren neurgailurik behinena. Kontsentsutik gertu dago gaur egun gure artean ideia hori, bai euskalgintzaren eremuan eta baita euskararen egoerari buruzko ikerketan dihardugunon artean ere. Horixe da, halaber, HINBEren (Hizkuntza ahulduaren Indarberritze saioaren) ikuspegia eta helburua ere:

Gurera ekarriz, hortaz, honelako zerbait genuke hizkuntz plangintza oro har, eta HINBE saioa bereziki: ahuldutako hizkuntza hori gero eta funtzio-esparru gehiagotan (eta garrantzitsuagoetan) **erabiltzeko**, eta gero eta hitzun gehiagoren ezpain-lumetara hedatzeko, gizarteak bere esku dituen baliabideak erabiltzea. (Zalbide, 2002: 13) (Azpimarratua gurea da)

Erabilera baldin bada indartu beharreko alderdi nagusia, zergatik da hizkuntza-gaitasunaren gaia ere garrantzitsua HINBEren ikuspegitik? Hizkuntza-gaitasuna erabilerarako zoru delako, honako bi zentzuotan gutxienez:

- Lehenik eta behin, gaitasuna ezinbesteko baldintza da erabilerarako. Ez dezakegu erabiltzeko gai ez garen hizkuntza erabili. Komunikazioa ez da gertatuko igorleak darabilen hizkuntza hartzaileak ere ezagutzen ez badu. Gutxieneko gaitasun bat ezinbestekoa da edozein hizkuntza erabiltzeko.
- Bigarrenik, behin gutxieneko gaitasun hori gaindituta, korrelazio argia dago gaitasunaren eta erabileraren artean (ikus adibidez, Eusko Jaurlaritza, 2013: 52). Oro har, zenbat eta hobeto hitz egiteko gai izan euskaraz, gehiago erabiltzen dute hitzunek, eta alderantziz.


Hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren arteko harremana, ordea, ez da horretara mugatzen, eta aldebikoa da. Izan ere, zenbat eta gehiago erabili hizkuntza bat, orduan eta hobeto, erosoago eta aberatsago hitz egiteko gai izango dira hitzunik. Eta zenbat eta gutxiago erabili, kamustu-herdoildu egingo da hitzunaren ezpainetan hizkuntza hori, eta gaitasuna ahuldu. Bigarren ikuspegi horretatik, erabilera hizkuntza-gaitasunaren motorra izango litzateke, hizkuntzaren ikasketa-prozesu naturaletik bertatik hasita:

Igeri eginez ikasten da igeri egiten, gainean jarri eta pedalei emanaz ikasten da bizikletan ibiltzen... ingurukoekin honetaz eta hartaz hitz eginaz ikasten da erraz eta lasai hitz egiten. (Zalbide, 2001: 28).

Lotura estu-estua dugu, beraz, erabileraren eta gaitasunaren artekoa. Zenbat eta gaitasun handiagoa, orduan eta gehiago erabiliko dugu; zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gaitasun handiagoa. Beste modu batean esanda: hizkuntza-gaitasuna erabilerarako zoru da batetik, eta erabilera hizkuntza-gaitasunerako motorra bestetik. Berriki, Patxi Saezek proposatu duen gurdiaren paradigman oso era grafikoan adierazi du lotura hori: gurdi beraren bi gurdilak dira erabilera eta gaitasuna, eta egoera normaletan biak batera doaz jiraka ardatz berari lotuta (Saez, 2016).

**Hizkuntza-gaitasuna erabilerarako zoru da batetik, eta erabilera hizkuntza-gaitasunerako motorra bestetik.**

**A. Grafikoa: hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren arteko alde biko harremana**



Gure ustez, ikerketa soziolinguistikoa euskara indarberritzeko ahalik eta probetxugarriena izatea nahi badugu, erabilerarekin duen lotura estu eta alde biko horretatik abiatuta jo behar dugula hizkuntza-gaitasuna ikertzera. Eta horretarako, tresna metodologiko egokiak behar ditugu hizkuntza-gaitasuna ikertzeko orduan. Txosten honetan, ikuspegi hori oinarritzen eta zehazten ahaleginduko gara.

Azken ohar bat: txosten honetan hizkuntza-gaitasunaz arituko garenean, ahozko gaitasun orokorraz arituko gara, hiztunek hizkuntzak ulertzeko eta hitz egiteko duten gaitasun orokorraz.

## **2. HIZKUNTZA-GAITASUNA: BEREZ CONTINUUM IZAERA DUEN ALDAGAIA**

**I** Hizkuntza bat ezagutzeaz<sup>1</sup>, hizkuntza-gaitasunaz ari garenean, zer aldagai motaz ari gara ikuspegi teoriko batetik begiratuta? Aldagai dikotomikoa al da eta herritarrak, bai eta ez, zuri eta beltz, hizkuntza hori

**Azken batean,  
tarteko ezagutza-  
mailak dituzten  
herritarrak beren  
burua “ez  
dakitenen” edo  
“badakitenen”  
multzoan  
sailkatzera  
behartzen ditu  
galdera  
dikotomikoak,  
errealitate  
konplexuak  
gehiegi  
sinplifikatuz eta  
desitxuratuz.**

ezagutzen dutenen artean eta ezagutzen ez dutenen artean banatu al ditzaiteke argi eta garbi eta soil-soilik? Edo tarteko gaitasun-mailak ere, grisen eskala zabala, onartzen dituen aldagaia da hizkuntza-gaitasuna?

Ez dirudi eztabaida handirik sortuko denik aztertu nahi dugun errealitatearen izaera berez zein den zehazterakoan: hizkuntza batean ezagutza-maila ugari egon daitezke, batere ez dakienaren eta bikain moldatzen denaren arteko *continuumean*. Ez da, hortaz, errealitate dikotomikoa.

Inguruko tradizio soziolinguistikoak<sup>2</sup>, ordea, ikuspegi dikotomikoa lehenetsi du hizkuntza-gaitasunaren azterketa enpiriko kuantitatiboan. Horrela, adibidez, Katalunian, Quebecen eta Galesen egin izan diren zentsu eta inkesta soziolinguistikoak aztertuta, ondorioa argia da: hizkuntza-gaitasunari buruz galdetu izan denean (ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gaitasunaz galdetu izan denean) “*bai/ez*” dikotomien arabera galdetu izan da inkesta eta zentsuetan, elkarriketatuei tarteko erantzunetarako aukerarik eman gabe (Iurrebaso, 2013: 9-22).

Ikuspegi dikotomiko horren abantailak argiak izanda ere<sup>3</sup>, agerikoa da errealitatearen ñabardura garrantzitsuak ezkututzen dizkigula. Izan ere, akatsa ere sistematikoki dakar berekin ikuspegi dikotomikoak, tarteko gaitasun-mailak dituzten hiztunak sailkatzeko zailtasunagatik. Azken batean, tarteko ezagutza-mailak dituzten herritarrak beren burua “ez dakitenen” edo “badakitenen” multzoan sailkatzera behartzen ditu galdera dikotomikoak, errealitate konplexuak gehiegi sinplifikatuz eta desitxuratuz<sup>4</sup>.

Testuinguru horretan, euskal soziolinguistika enpirikoak bestelako bidea jorratu du, eta gaitasunaz galdetzerakoan, hasiera-hasieratik gainditu egin du ikuspegi dikotomikoa. Horrela, 1981. urtean EAeko zentsuetan euskarazko ezagutzari buruz lehen aldiz galdetu zenean, euskaraz ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko zuten gaitasunari buruz galdetu zitzaizen herritarrei. Horietako (azpi)gaitasun bakoitzean hiru erantzun-aukera, eta ez bi, eskaini zitzaizkien elkarriketatuei euren gaitasuna deskribatzeko: *ezer ez*, *nekez* eta *ondo*. Erantzun-aukera horiek berak (*bai/ez* dikotomia gaindituz beraz) erabili izan dira orduz geroztik Hego Euskal Herrian egin izan diren zentsu eta biztanleria estatistiketan (tamalez, Ipar Euskal Herriko zentsuetan ez da hizkuntzari lotutako galderarik egin izan inoiz).

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa ere (ISL) ez da ikuspegi dikotomikora lerratu eta 1991. urtetik aurrera bost urtetik behin egindako

inkestak guztietan, bost erantzun-aukera eskaini izan zaizkie inkestan parte hartu dutenei euskarazko gaitasunei buruz galdetu zaienean: *Ongi, Nahiko ongi, Zertxobait, Hitz batzuk* eta *Ezer ez*. Horretaz gain, gaitasun erlatiboaz ere galdetzen zaie ISLn elkarrizketatu elebidunei (zein hizkuntzatan hitz egiten duten errazago, euskaraz ala gaztelania/frantsesez). Horrekin guztiarekin, gaitasunak berez duen *continuum* izaerara hurbiltzen lagundu ahal digun oinarritzko informazio aberatsa eta baliagarria eskura dugu Euskal Herrian, aurrerago ikusiko dugun bezala.

### 3. ZEIN DIRA 'CONTINUUM'-AREN MUTURRAK? ZER DA HIZKUNTZA BAT 'ONDO' JAKITEA? ZER NEURTU BEHARKO LUKE HIZKUNTZA-GAITASUNAK?

**I** Erraza da une jakin batean eremu jakin bateko hiztunek hizkuntza batean (demagun euskaraz) duten gaitasunaren balizko *continuum* teoriko horren beheko muturra zein den finkatzea: hizkuntza hori (euskara gure kasuan) batere ulertzen ez duten eta batere hitz egiteko gai ez diren herritarrek osatzen dute beheko mutur hori. Ez dut uste irizpide horrek eztabaida handirik eragingo duenik.

Zein ezarri, ordea, goiko mugatzat? Zuzentasun gramatikala, lexikoa, fonologikoa, ortografikoa...? Iñakik bere txostenean dio komunikazio-gaitasunarekin lotu beharko genukeela nagusiki hizkuntza-gaitasuna. (Martinez de Luna, 2016: 8) Neu ere bat nator bete-beteen oinarritzko irizpide horrekin. Azken finean, hizkuntza-gaitasunaz aritzeko, hizkuntzak gizakion bizitzan betetzen duen toki *praktikoaz* egin beharko dugu gogoeta halabeharrez. Eta zer-nolako lekua betetzen du hizkuntzak gure bizitzan?

Hizkuntza da gure adimena, ideiak, hunkidurak, asmamena eta deskargak lantzeko dugun tresna behinena. Hizkuntza da ohean maiteari ñabardura fintzeko, gatazkan mespretxua borobiltzeko, sustantibo baten atzean umorea ezkutatzeko, erresonantzia familiar bat duen hitz batekin etxean konplizitate-une bat sortzeko. Hizkuntza zorrotza da ezpata denean, astuna borra denean, mehea orratza denean eta jolastia ispilua denean. Hizkuntza komunikatzeko da, espresatzeko, gozatzeko eta sortzeko. (Sarasua, 2013: 223).

Ikuspegi hori garatuz, esan dezakegu norbere bizitzako eguneroko zeregin eta egoera guztietan hizkuntza horretan (euskaraz gure kasuan) bikain moldatzen diren hiztunek osatzen dutela hizkuntza-gaitasunaren *continuumaren* goiko muturra. Hiztun horientzat, guztiz praktikoa eta

---


**Azken finean, hizkuntza-gaitasunaz aritzeko, hizkuntzak gizakion bizitzan betetzen duen toki praktikoaz egin beharko dugu gogoeta halabeharrez.**

**Honela zehaztuko genituzke gaitasunaren continuumaren bi muturrak: ezer ez dakitenak daude mutur batean, eta euskara zeharo menderatzen dutenak, norbere bizitzako edozein egoeratan eroso erabiltzeko gai direnak bestean. Bi mutur teoriko horien artean sakabanatuta daude edozein eremu eta garai zehatzetako hiztunak.**

erabilgarria izango da hizkuntza hori. Eta erabilera molde eta une bazuetan plazer emaile eta ludikoa ere bai<sup>5</sup>.

Laburtuz, bada, honela zehaztuko genituzke gaitasunaren *continuum*aren bi muturrak: ezer ez dakitenak daude mutur batean, eta euskara zeharo menderatzen dutenak, norbere bizitzako edozein egoeratan eroso erabiltzeko gai direnak bestean. Bi mutur teoriko horien artean sakabanatuta daude edozein eremu eta garai zehatzetako hiztunak, B grafikoan irudikatzen dugun bezala.

**B. Grafikoa:** hizkuntza baten hizkuntza-gaitasunaren continuum teorikoa eta bertan hiztunek hartzen duten tokiaren adibidea (ardatz bakarra).




#### 4. ZER-NOLAKO GAITASUNA INTERESATZEN ZAIGU, EUSKARARENA BAKARRIK EDO BAITA GAZTELANIA/FRANTSSESARENA ERE?

Txostenaren hasieran azaldu dugun bezala, hizkuntza ahulduaren erabilera ahalbidetu eta lagundu dezakeen neurrian interesatzen zaigu orri hauetako gogoeta honetan hizkuntza-gaitasunaren gaia. Hortik abiatuta, funtsezko galdera honi erantzun beharra dugu: zein aldagaik du indar handiagoa Euskal Herrian ematen den hizkuntzen erabilera azaltzeko orduan, euskarazko hizkuntza-gaitasunak edo euskarazko eta erdarazko<sup>6</sup> hizkuntza-gaitasun alderatuak? Hots, zer da erabakigarriagoa, euskarazko hizkuntza-gaitasunaren ardatzean hiztunek betetzen duten tokia (euskaraz duten gaitasun handiagoa edo txikiagoa) edo, euskarazko ardatzean ez ezik, erdarazkoan ere betetzen duten tokia eta bi ardatzetan betetzen duten tokia alderatzea?

Ez dugu aurkitu funtsezko galdera horri zuzenean erantzuten dion ikerketarik. Hipotesi gisa planteatu beharko dugu, hortaz, oraingoz gure erantzuna<sup>7</sup>. Hona, bada, hipotesia : Euskal Herrian hiztunek egiten duten erabilera hobeto azaltzen da hizkuntza baten eta besteen artean

duten hizkuntza-gaitasun erlatiboa aintzat hartuta (hots, zein mailatan dakien A hizkuntza eta B hizkuntza, eta zein mailatan dakien hobeto bat bestea baino), eta ez euskaraz aritzerakoan gaitasun handiagoa edo txikiagoa ote duten aztertuta. Hizkuntza-gaitasunaren aldetik, horixe izango da oinarri objektibo funtsezkoa hizkuntza bat edo bestea gehiago erabiltzeko; hau da, zein hizkuntzatan aritzen den errazago, erosoago, eraginkorrago. Oinarri objektibo horrek esaten duena ez da beti erabileran gauzatuko, inguruneak eskaintzen dituen erabilera-aukerek eta hiztunek dituzten bestelako motibazio ez-zuzenean pragmatikoek ere zerikusia dutelako hizkuntzen erabileran. Gaitasun erlatibo hori, ordea, funtsezkoa da hizkuntza-portaerak azaltzeko, eta ezinbesteko erreferentzia erabilerak duen egoeraren eta izan duen bilakaeraren argazki leiala egiteko.

**C. Grafikoa: bi hizkuntzetako (euskarazkoa eta gaztelaniazkoa/frantsesezkoa) hizkuntza-gaitasunaren continuum teorikoaren gurutzaketa eta bertan hiztunek hartzen duten tokiaren adibidea (bi ardatzetako planoan)**



Ondorioa, beraz, argia da: euskarazko eta frantsesezko hizkuntza-gaitasuna hartu beharko dugu kontuan Iparraldeko errealitatea aztertzeko<sup>8</sup>, eta euskarazkoa eta gaztelaniazkoa Hegoaldeko errealitatea aztertzeko.<sup>9</sup> Ardatz bakarreko B irudia motz geldituko zaigu hortaz. Eta bi hizkuntza-pareak kontuan hartuta, bi koordinatu ardatzetan kokatu beharko ditugu hiztunak, euskaraz duten ezagutza eta gaztelaniaz/frantsesez dutena aintzat hartuta, C grafikoan irudikatzen dugun bezala.

**Hipotesia: Euskal Herrian hiztunek egiten duten erabilera hobeto azaltzen da hizkuntza baten eta bestearen artean duten hizkuntza-gaitasun erlatiboa aintzat hartuta (hots, zein mailatan dakien A hizkuntza eta B hizkuntza, eta zein mailatan dakien hobeto bat bestea baino), eta ez euskaraz aritzerakoan gaitasun handiagoa edo txikiagoa ote duten aztertuta.**



## 5. HIZKUNTZA-GAITASUNA GUREAN IKERTZEKO ITURRI NAGUSIAK: ZENTSUAK ETA INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA

### I

Euskal Herriko herritarren hizkuntza-gaitasunaren berri izateko, bi iturri nagusi ditugu eskura: zentsuak eta ISL. Bi eragiketa estatistiko garrantzitsu horien ezaugarri nagusiak bilduko ditugu taula honetan.

1. Taula: zentsuen eta inkesta soziolinguistikoaren alderaketa metodologiaren ikuspegitik.

	Zentsuak eta biztanleria-estatistikak <sub>10</sub>	EHko Inkesta Soziolinguistikoak
Unibertsoa (I): lurralde-eremuari dagokionez	EAE eta Nafarroa	Euskal Herria
Unibertsoa (II): adin-tarteari dagokionez	Hiztun guztiak (2 urtetik gorako herritarrak)	16 urtetik gorako herritarrak
Ikertutako hizkuntza(k)	Euskarazko hizkuntza-gaitasuna	Euskarazko hizkuntza-gaitasuna eta gaztelaniazkoa/frantsesezkoa 1991., 1996. eta 2001. urteetan (2006. eta 2011. urteetan, euskarazko gaitasuna besterik ez).
Jatorrizko galderak	Euskaraz ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gaitasunari buruz galdetzen zaie herritarrei, eta erantzuteko hiru aukera eskaintzen zaizkie kasu bakoitzean: ondo, nekez eta ezer ez.	Ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gaitasunari buruz galdetzen zaie herritarrei, eta bost aukera aurreikusten dira kasu bakoitzean: Ongi, Nahiko ongi, Zertxobait, Hitz batzuk eta Ezer ez.  Horretaz gain, beste galdera batean bi hizkuntzetan hitz egiteko gaitasun erlatiboaz ere galdetzen zaie elebidunei (euskaraz edo erdaraz, zein hizkuntzatan aritzen diren errazago, alegia).
Metodologia - Lagina	Teorian, herritar guztiengana iristeko helburuz egiten dira zentsuak, eta, praktikan, herritar multzo oso handietara iristen dira.  Tankera horretako prozedurak erabilia egin ziren 1981., 1986., 1991., 1996. eta 2001. urteetakoak. Metodologia, ordea, sakon aldatu da 2006. eta 2011. urteetakoetan. Horietan, erregistroen ustiaketan, inkesta zabal batean eta kalkuluen lanketan oinarritzen dira emaitzak.	Inkesta; etxex etxekoa 1991n, 1996an eta 2001ean; telefono bidezkoa 2006an eta 2011n.  Lagin handi bati egin izan zaio inkesta. Euskaldunen azpi-lagina proportzionalki egokituko litzatekeen baino handiagoa da. Ondoren, emaitzak haztatu egiten dira.  2011. urteko ISLren lagina: 7.800 inkesta; akats-tartea: $\pm 1,5$ ekoa %95,5eko konfiantza-mailarako eta $p=q=\%50$ denerako.
Denbora-seriea	1981etik aurrera EAEn, eta 1986tik aurrera Nafarroan, bost urtez behin (2006. urtean Nafarroan ez).	1991. urtetik aurrera, bost urtez behin

Iturria: lurrebaso, 2013: 23.

Bi eragiketa estatistiko garrantzitsu horien artean, ISL lehenetsiko dugu, funtsezko bi arrazoiengatik: Euskal Herri osoko ikuspegia ematen digulako batetik eta txosten honetan aipatu dugun hizkuntza-gaitasunaren *continuum* izaera askoz hobeto islatzen lagun diezagukeelako bestetik. Horrek ez du esan nahi zentsuetako informazioa baliagarria ez denik Hego Euskal Herriko lurraldeetarako. Aitzitik, zentsuetako datuak behar-beharrezkoak izango ditugu bai haurrei buruzko informazioa eskuratzeko eta baita udalerrri edo eskualde mailako informazioa eskuratzeko ere.

Edonola ere, erabileraren eta gaitasunaren arteko harremanaren ezagutzan sakontzeko bereziki landu behar den *continuum* ikuspegia ikertzeko, ISLra jo beharko dugu nagusiki, inkesta horretako hainbat galderatan oinarrituta ahozko hizkuntza-gaitasunarentzat sortutako aldagaira, zehazki.

## 6. AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, AZTERKETARAKO OINARRIZKO ALDAGAI

1991. urtean Euskal Herri osoan egindako lehenengo Inkesta Soziolinguistikokoaren emaitzak *Euskararen Jarraipena* liburuan aurkeztu zituztenean, *continuum* ikuspegira hurbiltzen zen hizkuntza-gaitasunari buruzko aldagai sintetikoa aurkeztu zuten bertan (Aizpurua, 1995: 56-58). Aldagai horrek ISLn bertan gaitasunari buruz egin ziren bost galdera hauei elkarrizketatuek eman zizkioten erantzunak zituen oinarrian:

- Euskara ulertzeko gaitasuna (ongi, nahiko ongi, zertxobait, hitz batzuk, ezer ez).
- Euskaraz hitz egiteko gaitasuna (ongi, nahiko ongi, zertxobait, hitz batzuk, ezer ez).
- Gaztelania/frantsesa ulertzeko gaitasuna (ongi, nahiko ongi, zertxobait, hitz batzuk, ezer ez).
- Gaztelaniaz/frantsesez hitz egiteko gaitasuna (ongi, nahiko ongi, zertxobait, hitz batzuk, ezer ez).
- Hitzun elebidunek hitz egiteko garaian erraztasun handiagoa zein hizkuntzatan duten, euskaraz, gaztelaniaz/frantsesez edo bietan berdin moldatzen diren

Zehazki, bost galdera horiei emandako erantzunen arabera, sei multzotan sailkatzen zituzten hiztunak. Aldagai sintetiko hori abiapuntu hartuta, eta moldaketa txiki batzuk eginda<sup>11</sup>, **ahozko hizkuntza-gaitasun aitortu erlatibo orokorra** (*Ahozko hizkuntza-gaitasuna* laburrago adierazita) adierazlea finkatu zen *Euskararen Adierazle Sistema* proiektuan<sup>12</sup>. Aldagai

horretan, *continuum* ikuspegira hurbiltzen den sailkapena lantzen da hiztunak honako zazpi multzotan sailkatuta:


<b>Erdaldun elebakarrak</b>	Gaztelaniaz/frantsesez hitz egiten dakite, baina ez euskaraz. Zehazki, ez dira gai euskaraz "ongi", "nahiko ongi" edo "zertxobait" hitz egiteko, ezta "ongi" edo "nahiko ongi" ulertzeko ere.
<b>Erdaldun hartzaileak</b>	Gaztelaniaz/frantsesez "ongi" edo "nahiko ongi" hitz egiten dakite, baina ez euskaraz. Hala ere, badute euskararen nolabaiteko ezagutza: "zertxobait" hitz egiteko gai dira edo "ongi"/"nahiko ongi" ulertzen dute.
<b>Erdal elebidunak</b>	Bi hizkuntzetan "ongi" edo "nahiko ongi" eginda, gaztelaniaz/frantsesez errazago hitz egiten dute euskaraz baino.
<b>Elebidun orekatuak</b>	Bi hizkuntzetan "ongi" edo "nahiko ongi" eginda, euskaraz eta erdaraz, bietan berdín aritzen direla erantzuten dute errazago zein hizkuntzatan aritzen diren galdetzen zaienean.
<b>Euskal elebidunak</b>	Bi hizkuntzetan "ongi" edo "nahiko ongi" eginda, euskaraz errazago hitz egiten dute erdaraz baino.
<b>Euskaldun hartzaileak</b>	Euskaraz "ongi" edo "nahiko ongi" hitz egiten dakite, baina ez gaztelaniaz/frantsesez. Hala ere, badute erdara horien nolabaiteko ezagutza: "zertxobait" hitz egiteko gai dira edo "ongi"/"nahiko ongi" ulertzen dute.
<b>Euskaldun elebakarrak</b>	Euskaraz hitz egiten dakite, baina ez erdaraz. Zehazki, ez dira gai gaztelaniaz/frantsesez "ongi", "nahiko ongi" edo "zertxobait" hitz egiteko, ezta "ongi" edo "nahiko ongi" ulertzeko ere.

Nola uztartzen dira ikuspegi teorikotik landu dugun eskema (C grafikoan irudikatu duguna) eta ISLko galderetan oinarrituta egindako adierazle honen sailkapena? Erantzuna D eta E grafikoetan irudikatu dugu.

**D. Grafikoa: hizkuntza-gaitasunaren ardatz teorikoen baitan lau eremu nagusien kokapen logikoa**



E. Grafikoa: ardatz teorikoen eremuan ahozko hizkuntza-gaitasuna aldagaiak dituen kategorien kokapen logikoa



**Zazpi kategoria horietako edozein hartu, eta bere barruan continuum txiki bat dugula erraz irudikatuko dugu.**

Baten bati irudituko zaio zazpi multzoko sailkapen hau oso xehea dela, xehegia aukeran, multzo gutxiagorekin nahikoa genukeela hizkuntza-gaitasunaren egoera eta bilakaera egoki aztertzeko. Azal dezagun gure ikuspegia: zazpi multzo horiek kualitatiboki oso ezberdinak dira elkarrekin alderatuta, eta bakoitzak bere izaera argia eta berezia du. Zehazki, gure ikergaia zein den gogoratuta, erabilerarako zoru-oinarri kualitatiboki ezberdina osatzen du zazpi kategoria horietako bakoitzak.

Are gehiago, zorrotz begiratuta, ezin ukatu zazpi multzo horiek beren baitan oso zabalak direla. Zazpi kategoria horietako edozein hartu, eta bere barruan *continuum* txiki bat dugula erraz irudikatuko dugu. Har dezagun, adibidez, erdal elebidunen multzoa (elebidunak izan eta erdaraz euskaraz baino errazago egiten dutenen multzoa) eta irudika ditzagun multzo hori definituko luketen bi muturrak:

- Alde batean, multzo horretako mutur erdaldunenean, “erdaldun hartzaileen” multzotik gertu aurkituko ditugu erdararen aldeko desoreka oso handia duten hiztunak, erdaraz edozer adierazteko oso ondo eta euskaraz aritzeko justu samar moldatuko direnak, euskaraz “nahiko ongi” hitz egiten jakin arren.
- Multzo beraren beste muturrean, aldiz, “elebidun orekatuen” multzotik gertu aurkituko ditugu euskaraz zein erdaraz bietan ongi moldatuko diren hiztunak, nahiz eta erdaraz pixka bat errazago aritzeko gai izan euskaraz baino.

**Etorkizunari  
begira,  
horregatik,  
interesgarria  
izan daiteke  
zazpi  
kategoriatako  
sailkapena are  
gehiago  
xehatzeko  
aukerak ere  
aztertzea.**

Esan beharrik ez dago multzo beraren bi mutur horiek egoera ezberdinak aurkezten dizkigutela erabilerarako zoruari dagokionez. Erdal elebidunen adibidearekin egin bezala, sailkapeneko edozein multzotarako definienezake barne-zabaltasun handi hori. Etorkizunari begira, horregatik, interesgarria izan daiteke zazpi kategoriatako sailkapena are gehiago xehatzeko aukerak ere aztertzea.

Dena den, horretan hasi aurretik, lehentasun handiagoa du orri hauetan egindako planteamendua lehen azterketa enpiriko batean gauzatzeak. Horrela frogatu ahalko dugu hemen proposatutako ildoak zein neurritan irekitzen dituen edo ez ikerketarako bideak. ●

### **OHARRAK**

1. Sinonimo gisa erabiliko ditugu txosten honetan hizkuntza baten “ezagutza” eta “hizkuntza-gaitasuna”.

2. Bat gatoz Paula Kasaresekin; hark ere azpimarratu egiten du gure tradizio soziolinguistikoa azterbide dikotomikoak izan duen garrantzia, eta zalantzak adierazten ditu aurrera begira bide horiek izan dezakeen eraginkortasunaren inguruan: *Ikerketa soziologikoetan dikotomia paretan eratutako azterketak kontinuumeko azalpenak baino usuagoak eta eraginkorragoak izan dira* (Rocher 1990: 254-256). *Gure tradizio soziolinguistikoa ere halako kategoria dikotomikoen bidez (euskara/erdara, euskaldunak/erdaldunak, gu/bertzeak, herri/hiri, hemengo/kanpoko...) azaldu dira euskararen eta erderen arteko harremanak* (Sanchez Carrion, 1972, 1981; Erize, 1997). *Baina gure gizarte komplexuan mintzairaren arteko harremanak aztertzeke baliagarriak al zaizkigu dikotomia paretat aztertutako kategoria horiek?* (Kasares, 2011: 202)

3. Ikuspegi dikotomikoak badu abantaila argi bat ikerketaren helburu nagusia hizkuntza baten hiztunak zenbat diren zehaztea denean. Helburu horri soil-soilik atxikiz gero, oso egokia da biko erdua: elkarrizketatuari berari zuzenean galdetzen zaio hizkuntza horretan hitz egiten badakien edo ez dakien, eta horrekin, hiztunen kopuru bakar, esanguratsu, alderagarri eta ulergarria eskuratzen da.

4. Tradizio dikotomiko horren barrutik ikertu dutenek dakite ondoen ikuspegi honen mugen berri. Honela mintzo zaigu, adibidez, Francesc Xavier Vila i Moreno katalandar soziolinguista:

*“Hi ha un sector no negligible de persones que d’alguna manera vacil·len a l’hora de declarar les capacitats lingüístiques pròpies, probablement perquè se situen en uns nivells intermedis d’adquisició que, per definició, no suporten bé els plantejaments dicotòmics. (...)”*

*En l’enquesta esmentada, els «sé parlar català» dubtosos són un 23,9% de les persones que declararen saber parlar català i un 20,2% del total de la mostra. En termes generals, es tracta d’un col·lectiu amb competències baixes o intermèdies que es veu gairebé forçat pel procediment de preguntes dicotòmiques a autocatalogar-se com a coneixedor del català, però que en la pràctica no té ni l’hàbit ni la competència comunicativa real per servir-se del català amb comoditat raonable”.* (Vila i Moreno, 2009: 55, 60)

5. Txepetek hizkuntzen ikasketa prozesu naturalaz ari denean dio haurrak hizkuntzarekiko berezko motibazioa garatzea honako bizipen hauen ondorio izan ohi dela: *“es el resultado (...) de combinar lo útil con lo agradable, en un maridaje de lo lúdico con lo rentable”* (Sánchez Carrión, 1987: 54). Ez dut uste gehiegi bortxatzen dudarik Txepetxen espiritua ikuspegi hori hizkuntza-gaitasun bikaina duten hiztunen bizipena deskribatzeko erabilita.

6. Txosten honetan erdaraz arituko garenean, gurean nagusi diren bi erdara horietaz arituko gara soilik: gaztelania Hegoaldean eta frantsesa Iparraldean.

7. Hipotesi gisa planteatzen dugun arren, egiten dugun aukera sendoa eta guztiz logikoa dela iruditzen zaigu. Azal dezagun adibide batekin: Nepaldik Ondarroara duela ia bi

urte etorritako Rajiv-ek euskara maila ertaina eskuratu du (elkarriketa arruntetan moldatzeko gai da); gaztelaniaz, berriz, ia ez du ikasi. Euskara erabiltzen du Ondarroako gainerako herritar gehienekin hitz egiteko. Handik kilometro gutxira, Durangon bizi da Amaia. Amaia familia erdaldun batean jaio zen, Durangon, eta beti bizi izan da bertan. Gaztetan ikasi zuen euskaraz eta ondo moldatzen da ia edozertaz hitz egiteko. Hori bai, gaztelaniaz are errazago moldatzen da. Bere bizitza arruntan, euskaraz egiten du seme-alabekin gehienetan, baina gaztelaniaz mintzatzen da beti edo ia beti bere jatorrizko familiarekin, senarrarekin, lankideekin eta betiko lagun ia guztiekin.

Bi pertsona horien kasuak alderatuta, argi dago euskara maila hobea duela Amaiak Rajivek baino, askoz ere hobea. Gaur egun, ordea, gehiago erabiltzen du euskara Rajivek Amaiak baino. Amaiak, izan ere, bi hizkuntzak erabil ditzake, Rajivek ordea, bakarra, euskara. Gurea etorrita, erabakigarriagoa da gaitasun alderatua (euskararen aldeko desoreka Rajivek, gaztelaniaren aldeko desoreka Amaiak), euskaraz batek eta besteak duten maila baino (Amaiak maila hobea Rajivek baino). Adibide horrekin adierazi nahi duguna zera da: elebakarrak diren herritarrek euren hizkuntzan hitz egingo dute beti, hizkuntza horretan maila handiagoa edo txikiagoa izan. Elebidunen kasuan ere, A hizkuntzan duten maila baino erabakigarriagoa izango da, gure hipotesiaren arabera, A eta B hizkuntzetako gaitasunetan duten desoreka.

8. Berez, Hendaia eta inguruetan, azterketa egoki batek eskatuko luke hiru hizkuntzetako gaitasuna eta erabilera aztertzea etorkizuneko ikerketetan, eta orain arteko planteamendua egokituz eta gaintuz (Hegoaldean euskarari eta gaztelaniari buruz galdetzea eta Iparraldean euskarari eta frantsesari buruz): *Errealitatera hurbiltzeko modu hori baliagarria izan zitekeen duela mende laurden Euskal Herri osoan, Bidasoak nahiko muga trinkoa ezartzen baituzten praktikan bi eremu politiko-kultural-soziolinguistikoko argi bereizteko. Gaur egun, ordea, ikuspegi hori ez da hain egokia hainbat udalerritako errealitatea aztertzerakoan. Gehienbat, Hendaia eta inguruko herriak ditugu gogoan. Lapurdiko udalerririk horietan, Gipuzkoatik joandako herritarrek kopuru handia osatzen dute (adibidez, %30-%40 inguru izan omen daitezke Hegoaldetik etorrita Hendaian bizi diren herritarrek), eta euskara zein frantsesa ez ezik, gaztelania ere hizkuntza ezagutua eta erabilia da udalerririk horietan. (Turrebaso, 2013: 7).*

9. Zorrotz arituta, euskarazko eta frantsesezko/gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna ez ezik, Euskal Herrian erabiltzen diren gainerako hizkuntzetakoa ere kontuan hartu beharko genuke, Ingelesarena bereziki. Dena den, horrek eskatuko lukeen diseinu konplexua artikulu honen helburuetatik at gelditzen da guztiz.

10. Zentsuak, berez, hamar urtez behin egin izan dira Espainiako Estatuan. Azkenak 1981., 1991., 2001. eta 2011. urteetakoak ditugu. Tarteko urteetan, berriz, prozedura eta emaitza aldetik zentsuekin pareagarriak diren "biztanleriaren estatistikak" egin izan dituzte EUSTATEk (1986, 1996 eta 2006) eta IENek (1986, 1996). Hori horrela izanda ere, irakurketa erraztearren, txosten honetan zentsu terminoa erabiliko dugu eragiketa estatistikoko horietaz guztiez aritzeko.

11. 1991ko jatorrizko sailkapenarekiko, honako bi moldaketa txiki hauek egin ziren EA-Serako lanketan: batetik "euskaldun elebakarren" multzoa bitan banatu, eta "euskaldun elebakarrak" eta "euskaldun hartzaileak" bereizi. Bestetik, beste bi kategoriaren izenak moldatu: "erdaldunak" "erdaldun elebakar" izendatu eta "elebidun hartzaileak" "erdaldun hartzaile".

12. "Ahozko hizkuntza-gaitasuna" adierazlearen fitxa, 2014. *Euskararen Adierazle Sistema*, argitaratu gabea.

## BIBLIOGRAFIA

- Aizpurua, X. (1995): *Euskararen Jarraipena*. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (Hizkuntza Politikarako Sailordetza), Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EKE (1997-1998): *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996*. *Euskararen Jarraipena II*. Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, EKE.

- Eusko Jaurlaritz (2003): *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 2001. Euskararen Jarraipena III* Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritz (2008): *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006: Euskal Autonomia Erkidegoa, Iparraldea, Nafarroa, Euskal Herria*. Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritz (2013): *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2011: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz.
- Iurrebaso, I. (2012a): "Metodozko hainbat proposamen euskararen erabilera zertan den aztertzeko" in *BAT soziolinguistika aldizkaria* 84 zkia., 89-101
- Iurrebaso, I. (2012b): "Euskararen erabilera zertan den. Premiazko diagnostiko bat datuen argitan" in *BAT soziolinguistika aldizkaria* 84 zkia., 102-119
- Iurrebaso, I. (2013): "Metodozko gogoeta eta proposamenak hizkuntza-gaitasuna aztertzeko". *Soziolinguistika Klusterrarentzat "Hizkuntzen egoera soziala Euskal Herrian" proiektuaren barruan egindako lan-txostena, argitaratu gabea*.
- Kasares, P. (2011): "Diglosiaren purgatorioaz iruzkin kritikoa" in *BAT soziolinguistika aldizkaria* 79-80 zkiak., 199-205
- Martinez de Luna, Iñaki (2016): Euskararen transmisioa eta gaitasuna, eta aurrera begirako erronkak, in Iñaki Martinez de Luna, Xabier Erize, Mikel Zalbide (2016): *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa, 1981-2011. Transmisioa eta gaitasuna, portaera linguistikoaren motibo subjektiboak eta mintzajarduna: Bilakaera eta aurrera begirako erronkak [Laburpena]*. Andoain, Soziolinguistika Klusterra (7-12).
- Saez, P. (2016): "Elefantearen paradigma ikusi". Guk [www.patxisaez.eus-etik-hartu-dugu](http://www.patxisaez.eus-etik-hartu-dugu).
- Sarasua, J. (2013): *Hiztunpolisa, Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Pamiela, Iruñea.
- Sánchez Carrión, J. M. "Txepetx". (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia. Sánchez Carrión (arg.). Estella.
- Vila i Moreno, F. X. (2009). Pot mesurar-se millor el coneixement declarat del català?, in Vila i Moreno, F.X. (dir.); Gomàriz i Auró, E. (col.l.) (2009): *Estudis de demolingüística: actes de la Primera Jornada de Demolingüística de la Xarxa CRUSCAT*. Barcelona, Institut d'Estudis Catalans (53-61).
- Zalbide, Mikel (2001): "Fishman-en HINBE edo RLS". Donostia, graduondoko HIZNET ikastaroaren baitako materiala. Guk [www.erabili.com-etik-hartu-dugu](http://www.erabili.com-etik-hartu-dugu).
- Zalbide, Mikel (2002): "Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?" in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak*, Donostia: EHIK. Guk [www.erabili.com-etik-hartu-dugu](http://www.erabili.com-etik-hartu-dugu).